# Jaurlaritzak ezarritako zerbitzu minimoak biharko greba eta mobilizazioak ikusezin bihurtzeko ahaleginak dira

## Greba egunaren bezperan bidali du agindua ikastetxeetara Jaurlaritzak. Orain arteko irizpide oro aldatuz, inoiz baino zerbitzu minimo handiagoak ezarri ditu osasuna bermatzeko aitzakipean greba eskubidea urratuz

Ikasturte hasiera honetan  erakusten ari den inprobisazio eta hezkuntza komunitate osoarekiko errespetu falta berdinarekin jokatu du Eusko Jaurlaritzak zerbitzu minimoen agindua ematerakoan ere.

Beste ekintza berantiar eta inprobisatu batean, hezkuntzako greba egunaren bezperan egin du publiko eta helarazi die ikastetxeei greba egun horretarako zerbitzu minimoen inguruko agindua. Gainera, orain arteko grebetan ezarritako zerbitzu minimoen inguruko irizpideak erabat aldatu ditu eta osasuna bermatzeko aitzakipean inoiz baino zerbitzu minimo altuagoak ezarri ditu.

Egunerokoan langile eta ikasleen osasuna bermatzeko neurri eta baliabideak jartzen ez dituen bitartean, zenbait kolektibotan 100%eko zerbitzu minimoak ezarri ditu (garbiketan esaterako), beste kolektibo batzuetan, protokoloetan ezarritako neurriak betetzea zapuzten duten zerbitzu minimoak ezarriz.

Honek, jadanik greba eguna antolatuta zeukaten ikastetxeetan, anabasa berri haundi eta onartezin bat sortuko du alde batetik, ardura oro berriro ere ikastetxeetako zuzendaritza eta langileen bizkar utziz; bestetik, osasuna bermatzeko aitzakipean egun bakar bateko grebarako zerbitzu minimoak ezartzeak eta gainera inoiz baino zerbitzu minimo handiagoekin, hezkuntza sailaren kudeaketa tamalgarria eta izandako utzikeria ezkutatuz mobilizazioa ikusezin egiteko eta greba desaktibatzeko saiakera bat suposatzen du.

Hau guztiagatik, eta greba eskubidearen urraketa larri baten aurrean gaudela ulertzen dugulako, sindikatuok zerbitzu minimoen agindua epaitegietara eramatea aztertzen ari gara.

Euskal Herrian 2020ko Irailak 14ean

ELA EUSKAL SINDIKATUA — LAB >irakaskuntza — steilas — CCOO irakaskuntza — UGT FeSP Zerbitzu Publikoak Euskadi

## Los servicios mínimos establecidos por el Gobierno Vasco intentan invisibilizar las movilizaciones y la huelga de mañana

**El Gobierno Vasco ha enviado la orden a los centros educativos la víspera de la jornada de huelga. Ha modificado los criterios hasta ahora utilizados, y bajo la excusa de garantizar la salud, ha establecido unos servicios mínimos más altos que nunca y que vulneran el derecho a la huelga.**

El Gobierno Vasco, en lo que a la orden de servicios mínimos se refiere, ha mostrado la misma improvisación y falta de respeto hacía la comunidad educativa que está demostrando en este inicio de curso.

En un nuevo acto tardío e improvisado, en la vispera de la jornada de huelga, ha hecho público, a la vez que ha transmitido a los centros la orden de servicios mínimos. Además, ha cambiado radicalmente los criterios seguidos hasta ahora a la hora de decretar los mismos, y ha establecido unos servicios mínimos más altos que nunca bajo el pretexto de garantizar la salud.

Mientras en el día a día no pone medidas y recursos para garantizar la salud de trabajadores/as y alumnado, en algunos colectivos ha establecido servicios mínimos del 100% (como en la limpieza), y en otros, ha señalado unos servicios mínimos que imposibilitan el cumplimiento de las medidas establecidas en los protocolos.

Esta generará una nueva situación de caos inaceptable en los centros, que ya tenían organizada la jornada de huelga, dejando de nuevo toda la responsabilidad a la dirección de los centros y a los trabajadores y trabajadoras. Por otro lado, el establecimiento de servicios mínimos para un solo día de huelga, que bajo el pretexto de garantizar la salud y son mayores que nunca, supone un intento de invisibilizar la movilización y desactivar la huelga para ocultar la dejadez y la penosa gestión del departamento de educación.

Por todo esto, y porque entendemos que estamos ante una grave vulneración del derecho de huelga, los sindicatos estamos analizando llevar la orden de servicios mínimos a los juzgados.

Euskal Herria a 14 de septiembre de 2020